

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maite Munarriz Cordero

*Lezo, Gipuzkoa
(1928)*

Aurkibidea



Biografia



Lezoko Donibane kalean jaio zen. Ama Lezokoa zuen; eta aita, Castejongoa, haurra zela, familiarekin Lezora etorria. Castejongoak izanagatik, anai-arreba guztiek ikasi zuten euskaraz. Maitek bi urte zituela hil zitzairen aita, eta ama hiru seme-alabekin geratu zen alargun. Familia aurrera ateratzeko, lan asko egin behar izan zuen amak: Atxaneko txapa-fabrikari aritu zen lanean, eta herriko plazan zegoen Gure Borda tabernara ere joaten zen tarteka, sukaldean laguntzera. Oso berezia eta arduratsua omen zen garbitasun-lanetan eta etxe batzuetatik deitzen zioten hartan laguntzera joan zedin. Maite gaztea zela, bere lagun batek eta biak beren anaiekin dantza egin zutela eta, zinta morea jarri omen zieten, bekatu egin omen zutelako; baina Maitek eta bere lagunak "Hijas de Maria" deitzen zuten neska gazteen kongregaziotik ateratzea erabaki zuten, zentzugabekeria zela iritzita. Eskabetxerian egin zuen lan lehendabizi Maitek; gero, Atxaneko txapa-fabrikari, 12 urtez. 1956an ezkondu zen; eta, ezkondu ondoren, koinatuaren paper- eta pintura-dendan aritu zen lanean urte luzez, erretiroa hartu arte.

Zintak

LEZ-020

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Data:** 2009-11-20
- **Iraupena:** 52 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

- **Kodifikatzailea:** Errazkin, Aitor

Pasarteak

1. Ama lan eta lan

- **Erref:** LEZ-020/002
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:05:03. **Bukatu:** 00:07:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Alarguntasuna

Laburpena:

Amak Atxaren txapa fabrikari egiten zuen lan, eta asteburutan Gure Borda taberna zenetik deitzen zuten, lanerako ere. Gazterik alargundu zen, hiru seme-alabarekin, eta zer erremedio.

2. Pobre baina garbi

- **Erref:** LEZ-020/003
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:07:25. **Bukatu:** 00:08:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ama eta ahizpa garbiketarekin oso bereziak zirela du gogoan Maitek, eta etxea beti txukun eta garbi edukitzen omen zuen.

3. Arropa eskuz garbitzen

- **Erref:** LEZ-020/004
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:08:43. **Bukatu:** 00:11:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

"Trozoko" xaboiarekin garbitzen zuten arropa, eta lixibarik gabe moldatzen ziren. Gero, eguraldi onarekin, zelaian zabaltzen omen zuten arropa, gehiago zuritu zedin. Arroparen garbiketa, etxean zein harraskan egiten zuten.

4. Argindarra eta ura

- **Erref:** LEZ-020/005
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:11:20. **Bukatu:** 00:12:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Argindarra eta ura; biak ezagutu ditu Maitek etxean, jaio zenetik, Kalean bizi baitziren, eta ez baserrian.

5. Ahizpa Madrilera zerbitzari

- **Erref:** LEZ-020/006
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:12:08. **Bukatu:** 00:14:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Ahizpa Madrileko etxe batera joan zen zerbitzatzera. Maitek nahiago izan zuen fabrikan lanean hasi, inor zerbitzatzan aritu baino.

6. "Maestra" Dolores

- **Erref:** LEZ-020/008
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:15:24. **Bukatu:** 00:16:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Maitek ez du gogoan zenbat urterekin hasi zen eskolan, baina bai Dolores zuela bere irakasleak izena, eta aski jatorra zela. Matematikako oinarrizko eragiketak erabiltzen, irakurtzen eta idazten ikasi zuen eskolan.

7. Txikitako jolasak

- **Erref:** LEZ-020/010
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:19:42. **Bukatu:** 00:20:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Haurrak zirela txingoka, saltoka eta halako jokoetan jostatzen ziren, baina etxe ondoan beti. Igeri egitera eta almeja edo txirla bila ere joaten ziren.

8. Eskola amaitu eta lanera

- **Erref:** LEZ-020/011
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:20:39. **Bukatu:** 00:21:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Eskola amaitu eta berehala hasi zen lanean Maite. Pasai Donibaneko

"eskabetxeria" batean hasi zen lehenik. Gero, txapa fabrika batean aritu zen, eta ondoren, Errenteriako denda batean jardun zuen.

9. Herriko bikarioa

- **Erref:** LEZ-020/012
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:21:54. **Bukatu:** 00:24:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Dotrina ikastera joaten zirela oso gogoan du Maitek, eta herriko bikarioarekin ere gogoratzen da. Oso zorrotza omen zen. Maite ez omen zuen sekula jo, baina bai anaia, ordea.

10. Etxeko eskola

- **Erref:** LEZ-020/014
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:25:17. **Bukatu:** 00:26:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Amak erakutsi zien etxeko zenbait lan nola egin behar ziren.

11. Ekonomia jarriko nuke berriz

- **Erref:** LEZ-020/015
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:26:21. **Bukatu:** 00:27:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Ilobak bitrozeramika jartzeko esaten dion arren, Maitek ez du oraindik sukalderik aldatu. Beregatik balitz, ekonomia jarriko luke berriz.

12. Dagoenean bon-bon; ez dagoenean egon

- **Erref:** LEZ-020/016
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:27:27. **Bukatu:** 00:28:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Gazte garaian Lezotik Erreenteriara zein Pasaiara joaten hasi ziren Maite eta haren lagunak. Hala ere, Maiteren ibilerak amaren poltsikoak mugatzen zituen. Amak ez zuen beti dirurik izaten seme-alabei emateko.

13. Senargaiarekin lanean

- **Erref:** LEZ-020/017
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:28:26. **Bukatu:** 00:30:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Senarra Palentzian jaioa zen eta bi urterekin Lezora bizitzera etorria. Txapa fabrikari aritzen ziren biak lanean, eta garaitsu hartan hasi omen ziren elkarrekin ibiltzen, aurrez elkar ezagutzen bazuten ere. Senarrak eta haren senideek ederki egiten zuten euskaraz, nahiz eta gurasoak kanpotik etorriak izan.

14. Mariaren Alabak kongregaziotik ospa

- **Erref:** LEZ-020/018
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:30:25. **Bukatu:** 00:33:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Bikote kontuan Maitek uste du lehen askatasun gutxi zegoela, baina egungoa gehiegi iruditzen zaio. Ez bat eta ez bestea ez ditu ongi ikusten. Maitek kontatzen du, behin, herriko jaietan, bera eta lagun bat bakoitza bere anaiarekin ibili zirela dantzan, eta horregatik zigortu nahi izan zituztela kongregazioan. Beraiek ez zuten zigorra onartu, eta kongregaziotik atera ziren.

15. Dendariekin harremana

- **Erref:** LEZ-020/020
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:35:19. **Bukatu:** 00:37:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Diru gutxi izanagatik, egunero jan beharra zegoen, eta sarritan, Maiteren amak dendatik etxeratutako generoa ordaindu gabe uzten zuen. Hala ere, hilabete bukaeran, soldata kobratzearekin batera, zor guztiak ordaintzen omen zituen. Harreman estua omen zuten dendariekin.

16. Ilusioz bizi

- **Erref:** LEZ-020/021
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:37:08. **Bukatu:** 00:38:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

Maitek dio, lehen pobre bizi arren, ilusio gehiago nabari zela jendearengan. Gaur egun gauza materialez ederki hornituta omen gaude, baina hala ere konforme ez.

17. Nahi eta ezin

- **Erref:** LEZ-020/023
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:41:46. **Bukatu:** 00:42:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Pospolinak gogoan ditu Maitek, eta gustatzen zitzaizkion, baina beraien amak ez omen zuen sekula izan seme-alabei halako jantzirik egiteko adina diru.

18. Dendan lanean, papera eta pintura saltzen

- **Erref:** LEZ-020/024
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:42:49. **Bukatu:** 00:45:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Maitek drogeria batean egiten zuen lan, baina itxuraz, denda hartan pintura eta papera saltzen ziren ere, eta hortaz arduratzen zen bera.

19. Gerra garaian Donostian babes

- **Erref:** LEZ-020/026
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:45:37. **Bukatu:** 00:47:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Gerra garaian haurra zen Maite eta ez du gauza askorik gogoan. Amaren ahizpari esker Donostiako familia dirudun baten etxean gordeta egon omen

ziren. Gerraosteko goseteari buruz galdetu eta errazionamenduko liburuxka oraindik etxean duela dio.

20. Lehen baino denda gutxiago Lezon

- **Erref:** LEZ-020/028
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:47:55. **Bukatu:** 00:49:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

Maitek garai bateko zenbait denda eta zerbitzuren hutsunea sumatzen du gaur egungo Lezon. Esaterako, zapataririk ez omen da, ez eta arropa denda edo burdindegirik ere.

21. Lehengo Lezo gogoan

- **Erref:** LEZ-020/029
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:49:17. **Bukatu:** 00:50:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

Alde handia ikusten du Maitek garai bateko eta gaur egungo Lezoren artean.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-05-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com